

# IAT-ITV GIPUZKOA

## Azterketa pasatzen ez duen lan erreforma



# IAT-ITV GIPUZKOA

## Azterketa pasatzen ez duen lan erreforma

### Aurkibidea

- 4**      1    Sarrera
- 5**      2    TÜV-Rheinland: negoziazio mahaian eseri nahi ez duen multinazional alemaniarra
- 9**      3    Aurreko gatazka eta mobilizazioak
- 12**     4    Irun eta Urnietako tailerrak greban
- 21**     5    Bederatzi hilabeteren ostean erditutako AKORDIOA
- 23**     6    Itxiera

Editorea: Manu Robles-Arangiz Institutua  
[www.mrafundazioa.org](http://www.mrafundazioa.org)  
Twitter: @mrafundazioa  
Fotokonposizioa: Horrika  
Inpresioa: Bilbograf

**TÜV-Rheinland**  
**Irun eta Urnietako ITV-IAT greban**  
**Bederatzi hilabeteko greba**  
**2013/06/15-2014/03/24**

*Enpresa-batzordeko kideak*  
*Jesús San Emeterio*  
*Guillermo Castilla*  
*Agustin Olano*  
*Unai Gorraiz*  
*Jesus Etxart*

Hernaniko ELAko egoitzan bildu ginen asteazken goiz batez. Egun hartako gure asmoa xumea zen: Irun eta Urnietako Ibilgailuen Azterketa Teknikoko (IAT) zentroetan borrokan ibili diren langileen testigantza jasotzea. Batzordeko buru den Ketxusekin aurretik hitz eginda geunden, eta gure poztasunerako, hara non agertu ziren gainontzeko beste ordezkari sindikal guztiak ere. Goiza aurrera joan ahala, IA T zentroetan lan egiten duten militanteek bete zuten gela. Txiki gelditu zitzaigun aretoa.

Gatazka luze honetan garaile ateratzeko ezinbestekoa izan dute lantaldearen beraren indarra eta antolakuntza, eta borrokarako estrategiak moldatzeko gaitasuna. Agian horretxan isla dugu goiz hartan talde handi bat bertaratu izana. Izan ere, udaletxe parean deitua zuten elkarretara -tzera jo zuten batzarra amaitutakoan. Ez zen hura pankarta baten atzean batzen ziren lehen aldia izango, ezta azkena ere.

Jarraian aurkezten dizuegun dokumentuan, bederatzi hilabete luzez greban tinko iraun dutenen lekukotasuna ezagutzera eman nahi dugu. Bide batez noski, omenaldia egin nahi diegu eta egindako lan gogorrari dagokion merezimendua eskaini.

## 1 Sarrera

Irun eta Urnietatik 170.000 bat ibilgailu pasatzen dira urtean Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT) egitera. 59 langile dira denera eta egundoko mobilizazio eta borroka gaitasuna dutela erakutsi digute beste behin ere. Langileen %80 inguru sindikatu baten kide da eta afiliatuta dauden horietatik %85 ELA kideak dira. Horrek, noski, badu bere isla: enpresa-batzordea osatzen duten bost ordezkariak dira ELAkoak.

TÜV-Rheinland Ibérica S.A. enpresa multinazionala da gaur egun bi estazio hauetako jardueraren kontzesionarioa, 1993an Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak esleipena eman zionez geroztik. Aurreko lan hitzarmena 2010eko ekainean adostu zuten sei hilabeteko lanuztearen ondoren. Lorpen honen berrikuntzarik nagusia haxe izan zen: bi zen-troetan lan egiten zuten 59 pertsonen eskubideak hitzarmen bakarrean batu eta arautzea.

Honen iraunaldia 2011/12/31an agortu zenetik, enpresak ez du hitzarmena berritzeko inolako asmorik erakutsi. Are gehiago, etengabe inkunplitu du. Jarrera horren ondorioz, mobilizazio eta lanuzte solteak antolatu dituzte langileek. Helburua argi zuten: patronalari ezin zitzaion utzi, inondik inora, lan erreforma aplika zezan. Hori saihesteko 2013ko ekainaren 15ean grebara deitu zuten. Luze joko zuen grebak.



## 2 TÜV-Rheinland: negoziazio mahaian eseri nahi ez duen multinazional alemaniarra

TÜV-Rheinland Ibérica S.A. enpresa Madrilen helbideratuta dago eta TÜV Rheinland Holding-aren parte da; egoitza Alemanian duen enpresa multinazionalaren parte, alegia. Gipuzkoakoak ez dira espainiar estatuan kudeatzen dituzten bakarrak; beste hogeit bat ere gestionatzen ditu, 500 bat langile gutxira. Gainera, enpresa-talde honek beste enpresa bat dauka Nafarroan finkatuta eta hiru estazio daramatza Doneztebe, Arbizu eta Berriozarren. Gipuzkoako bi zentroetan dabilzan 59 langileen urteko soldata-masa 2 milioi eurokoa da; urteroko fakturazioa 6 milioi eurokoa dela kontuan hartzen badugu, erraldoia da enpresari geratzen zaion tarte.

Enpresak bere egitasmoa ondo zehaztuta zuen 2010 urtetik eta ez du lan hitzarmena negoziatzeko inongo prestutasunik agertu izan. Aldiz, prest dago abokatu eta komunikazio gastuetan zerbitzu “onenak” ordaintzeko, zerbitzuon kostuari erreparatu gabe. Enpresarekiko mesfidantza pizten diguten bi elementu dira hauek. Batetik, enpresak kontratatuta duen abokatu-bulegoan ( *Barrileros y asociados* ), Minguez Benavente jauna daukagu, Lan Erreformen txostengilea izen dena. Bestetik, TÜV-Rheinlandentzat lan egiten duen komunikazio-bulegoa ere punta-punta-koa da: *VK Comunicación*. Betiere langileak uzkurtuko ziren helburuarekin, enpresak ez du zalantzarik izan eskura izan dituen baliabide guztiak erabiltzerako orduan.

### IATen negozio biribila

Non dago pagotxa? Azalpena entzundakoan, begi-bistakoa da mauka; azken batean derrigorrezkoa den zerbitzu publiko baten kudeaketaren pribatizazioa dago horren atzean. Publikoa den zerbitzu baten kontura abe-

rasteko interes pribatuek duten etekin gosea, alegia. Hain zuzen ere, errepideetan ibili ahal izateko nahitaezkoa den ziurtagiria emititzeko monopolioa, 1993 urtera arte administrazio autonomikoaren esku egon zena, esku pribatuetara pasatu izana. Gai korapilatsua da oso Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren adjudikazioena, eta labur bada ere, jarraian datoren taulak biltzen ditu datu esanguratsu batzuk.

## Adjudikazioen auzia

Enpresak langileekin lan hitzarmenaren inguruan izandako gatazkaz gain, ezinbestekoa da “adjudikazioaren auzia” zertan datzan ulertzea. Horretarako, 1993 urte bukaerara atzera egin beharra dago.

Garai hartan, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak lau enpresari esleitu zien IA Ten kudeaketa, lehiaketa bidez; Iteuve Euskadiri Arrigorriagakoa eta gerora Zamudion eraiki dena; Inspección Técnica Link enpresari Trapagakoa eta beranduago ireki zuten Zornotzakoa; Luybas enpresari Gasteizeko zentroa eta geroago Bergaran martxan jarritakoa. Laugarrenari, TÜV Rheinland Ibéricari, Urnietakoa eta oraindik eraikitzeke zegoen Irungoa egotzi zizkieten.

Harrez gero luzea izan da esleipenaren auziak izan duen ibilbide judiziala. Laburtze aldera, 2007 urteko epai irmoak ebatzi zuen lehiaketa irabazi zuten lau enpresa horien artean, bik ez zutela legezkotasuna betetzen; Luybas (gerora Applus+) eta TÜV Rheinland, alegia. Epaia ondoz, lehen enpresari Gasteiz eta Bergarako estazioen esleipena kendu zitzaion eta bere garaian irabazi behar zukeela estimatu zen enpresari eskualdatu zitzaion, beste 30 urterako. Guztira, bi enpresen artean 50 urterako kontzesioa batzen dute, eta auziak irekita jarraitzen du.

TÜV-Rheinland enpresari dagokionez, berez sententziak legez kanpokoa dela adierazi duen arren, egoerak bere horretan jarraitzen du. Auzitegi konstituzionalak, une jakin batean, 1994ko hasierako egoerara itzuli beharra zegoela erabaki zuen arren, multinazionalak

babesgabetasuna alegatu du eta multinazional alemanak Gipuzkoako zentroak ustiatzen jarraitzen du. Bere lekuan, Leongo ltevelesaren esku egon beharko luke legearen arabera...

Zer dago interes pribatuen atzean? Negozio biribila egiteko parada. Izan ere, Gipuzkoako bi zentroetan 170.000 bat auto inguru ikuskatzen dira utero. Kontzesioak 30 urterako dira eta enpresek Jaurlaritzari ordaindu behar dioten kanonaz salbu (%10), gainontzekoa enpresarentzat da. Estimatzen da, Bergara, Gasteiz, Irun eta Urrietako estazioen legez-kanpoko kudeaketak, gutxi gora behera 1,5 milioi euroko urteroko irabaziak ekarri dizkiela aipatu enpresei. Hemeretzi urtetan, beraz, 57 milioi euro eraman dituzte bien artean.

Horretaz gain, politikan ate-birakaria izenarekin ezagutzen den fenomenoaren adibidea ere badugu. IA Ten esleipenaren garaian, 1993 urtean, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailean funtzionarioa zen Javier Goldarazena. Lehiaketaren prozesuan parte hartu zuen eta bera izan zen bere garaian prozesuari zegozkion txostenak egin zituen. 2006 urtean, TÜV-Rheinlandek, Irun eta Urrietako kargu gorena Javier Goldarazaren esku utzi zuen. Ez da kasualitatea izango, 1993 urtean alemaniar multinazionalari legez kanpo esleitutako zentroen kargu politikari-ohi honek hartu izana.

## **Enpresaren azpijokoa: botere sindikala erasotu nahian**

*“TÜV Rheinlandek ez du ezertxo adostu nahi langileekin. Horixe da enpresaren kultura”*

Enpresak ondotoxoa ezagutzen du Irun eta Urrietako tailerretako langileek daukaten mobilizazio gaitasuna. Enpresa-batzordearekin bildu ginen goiz hartan, 2012ko uztaileko hauteskunde sindikalen harira enpresak egindako azpijokoa azaldu zigten.

Enpresaren xedea, ELAk enpresa-batzordean zuen nagusigoa kolokan jartzea zen. Zertarako? Enpresaren interesak bermatuko dituen ordezkariak sindikalari ateak irekitzeko. Izan ere, TÜV-Rheinlandek badu bere neurria maneiatzeko sindikatua: CCOO. Gogotik irteten zaiona egin eta Madrileko eredia hona ekartzeko kide aproposa.

Hala, oso denbora arinean hauteskunde-zerrendak inpugnatu zituzten azken orduko laudo baten bidez. Bide horretatik, enpresako buruzagitzan dauden bost ingeniariak bozka zezaten lortu nahi zuten, haien botoari esker CCOO sindikatuko ordezkari bat edo bi ateratzeko. Honekin, bere aldeko sindikatua izango luke enpresak Gipuzkoan ere, gauzak bere moduan egiten utziko liokeena. Horren berehalako ondorioa negoziazioa Madrileran eraman eta lan erreforma aplikatzen hastea izango litzateke.

*“Nahiz eta ordezkari bakarra atera CCOOk, ordezkari hori Madrileran bidali, eta akordio batekin itzuli liteke bertatik, esanez, ELA ez dela Madrileran joan nahi izan ez duelako”*

TÜV-Rheinland enpresak Madrilen gauzak zelan egiten dituen ikustea besterik ez dago; 21 kaleratze, lanaldi erdibituak, igandeetan lan egitea, hitzarmenaren aldaketak, eta dena, CCOO sindikatuarekin adostuta. Baldintza okerragoak, langile gutxiago, eta lanordu gehiago. Beraz, ELArentzat funtsezkoa zen hauteskunde horietan bere ordezkariak bermatzea, hein handi batean erabaki esparrua gurean mantendu ahal izateko: enpresak negoziazioa Madrileran mugitzeko izan lezakeen edozein aukera blokeatu beharra zegoen. Hori, eta lan erreforma aplikatzen has-teko edozein aukera ere.

Enpresari ez zitzaion trikimailua pentsatu bezala atera. Irun eta Urnietako langileen eta afiliatuen konpromisoari esker, ELAk irmo erantzun du eta enpresa-batzordearen gaineko kontrol osoa bermatzea lortu du, ordezkarietan pisua galdu duen arren.



### 3 Aurreko gatazka eta mobilizazioak

Luzea da azken urteetan Gipuzkoako zentro hauek borroka sindikalean jorratu duten bidea. Aurreko lan hitzarmena, sei hilabeteko grebaren ostean lortu zuten: gatazkak ezabatzeko prozedurak (PRECOK) ebatzi zuen 2010ko udan. IAT zentroetako langileek aurre hartu diote enpresaren irregulartasunei: Lan Hitzarmena sinatu bezain pronto, adostutakoa ez bete-tzeari ekin zioten. Enpresak lan erreformaren bidetik joko zuela ikusi zuten langileek. Hori dela eta, 2011an negoziazio mahaia ireki zen berriz ere langileen ekimenez. Zeren bila ari ziren? Zer zen eskatzen zutena?

***Iraungita zegoen PRECO 2010 hitzarmena berrizatzea eta testua berme juridikoz hornitzea hitzartutakoa beteko dela ziurtatzeko.***

Enpresa lan hitzarmeneko baldintzak ez betetzen hasi zen eta gainera lan hitzarmena agortutakoan, ez berritzeko jarrera garbia hartua zuen. Gogora dezagun, enpresako abokatuen artean, lan erreforman parte hartu zuen Benavente jauna dagoela. Langileak susmo txarrak hartuta zeuden: lan gatazka enkistatzea izan zitekeen enpresaren estrategia. Oraingoz zerbitzuaren adjudikazioa TÜV Rheinland enpresak duen arren, Eusko Jaurlaritzak eskumena lan hitzarmenik ez duen beste enpresa bati



ematea erabaki dezake, lan gatazka amaigabearekin nazkatuta eta adjudikazioen irregulartasuna oinarri hartuta. TÜV Rheinlanden itxaropena, kasu honetan, trukean kalte-ordaina jasotzea izan daiteke.

## Atzera begira: aurreko mobilizazioak

- 2010eko ekainean, sei hilabete iraun zuen grebari eman zitzaion amaiera. Lan hitzarmena, auziak ebazteko PRECOren eskutik iritsi zen. Enpresak hasieratik ekin dio baldintzak ez errespetatzeari. Hona hemen, hitzarmenean adostutako puntu garrantzitsuenak:

- . Behin betiko ultraktibitatea
- . 35 ordu guztientzat
- . Lan erreformaren aurka blindatutako hitzarmena
- . Lan baldintzen gaineko edozein eraldaketa, langileekin adosteko beharra

Aipatuko goiko hauez gain, beste bi garaipen nabarmendu behar dira. Alde batetik, bi tailerretan lan egiten zuten mekanikarien artean soldatak berdintzea lortu zen. Izatez, 2007 adostuta zegoen arren, enpresak ez zuen hitzartutakoa bete. Lorpen garrantzitsu honek 13 langileri eragin zien.

Bestetik, adjudikazioaz geroztik administrarietako emakumeak gehienak geroz eta funtzio gehiagoren kargu egin behar zutelako kontuan hartuz, haien soldata mekanikariarekin parekatzeko helburua markatu zen. %100ean berdintzea lortu ez zen arren, administrarietako soldatek %30ean egin zuten gora, mekanikarietatik %10 gutxiago.

- 2011ko urrian Plataforma aurkeztu zuten langileek.
- 2012ko otsailean (2), martxoan (27), eta apirilean (16, 18, 26) lanuzteak egin zituzten.

- 2012ko udan, sei eguneko greba egin zen; ekainean (21, 27, 28, 29) eta uztailean (3 eta 4).

- Uda amaituta mobilizazioei berrekin zioten: 2012ko irailaren 7an hasita. Lau orduko lanuzte partzialak egin zituzten 180 egunetan zehar.

- 2013ko udaberrian, berriz ere, grebara deitu zuten martxoan (25, 26, 27), apirilean (2, 3, 4, 6, 29, 30) eta maiatzean (2, 3, 4, 6, 7, 8, 9, 10, 11).

- Handik hilabetera, 2013ko ekainaren 15an abiatu zen greba. Uztailaren 6ra arte deitua zegoen hasiera hartan ... eta 9 hilabetez luzatu da.

Susmoak susmo, errealitatea hortxe zegoen: aurreko lan hitzarmena bermatzeko enpresaren gelditasuna. Egoerari aurre egiteko, 2011ko urrian plataforma aurkeztu zenetik, anitzak izan dira langileek martxan jarri dituzten mobilizazioak eta lanuzteak. 2012ko otsailean hasita, urte bereko martxoan, apirilean, ekainean eta uztailean lanuzteak egon ziren... Irailetik hasita, sei hilabetetan zehar lau ordutako lanuzte partzialak egin ziren. 2013an mobilizazioek jarraitu zuten eta hala, greba egunak egon ziren udaberrian zehar.

Denetarik egiten saiatu ziren eta ez zekiten zer gehiago egin. Greba egun batzuk egin zituzten arren, enpresak ez zuen aurrerapausorik ematen, oso eroso zegoen. Horregatik 2013ko Aste Santuko bi asteetan greba egitea adostu zuten. Horren ostean, bi aste eman zuten gogor lanean, baina berriz ere enpresaren borondate falta ikusita, grebari ekitea erabaki zuten 2013ko ekainean.

## 4 Irun eta Urnietako tailerrak greban

IATko langileen eskaera oso argia izan da hasieratik bukaerara: aurreko lan hitzarmena berriztatzea. 2010ko udan aurreko grebaren ondoren adostutako hitzarmenak, langileei baldintza duinak bermatzeaz gain, oraindik ere publikoa den zerbitzu baten kontsolidazioa ekarri du; 35 orduko lanorduaren ezarpenak langile kopurua bikoiztea posible egiteaz gain, bezeroari arreta orduak hedatu da kalitatezko zerbitzua eskaini ahal izatea.

Enpresa-batzordekoekin solasean aritu ginen egun hartan, ozen eta argi esan zigun haietako batek,

*“kexu garenean, gizarte-ereduaz ere ari gara,  
ez bakarrik gure lan baldintzez”*

Jakina, derrigorrezkoa den zerbitzu publikoaren pribatizazioaren inguruan duten iritziaz ari da. IA T tailerrak kontzesio bitartez enpresen esku uztea, tailerreko militanteek pentsamoldearekin bat egiten ez duen erabakia da. Esleipen hauei esker interes pribatuei hogeita hamar urtez negozio biribila esplotatzeko atak irekitzen zaizkio.

Urte guzti horietan zehar, fakturazioaren gaineko %10eko kanon irri-garria ordaindu behar dio Jaurlaritzari, eta gainontzekoa ... enpresaren patrikan geratzen da. Hortik datorkio enpresari azterketaren prezioa igotzeko duen seta: administrazioa estutzen dute tarifak garestitu ditzan. Irun eta Urnietako langileen ELAko ordezkariak, argi erakutsi ziguten haien desadostasuna. Onartezina deritzote enpresek prezioak igotzeko gobernuari sartzen dioten presioa.

Azken finean, eta berriz ere zerbitzu publikoaren derrigortasunera itzuliz, benetan sendoa den argumentua geratzen zaigu agerian: gobernuak eman eta bermatu beharko lukeen zerbitzua den heinean, Irun eta Urnietako lan esparruko gatazka gobernuaren ardura ere badela. Gogora dezagun, bi tailerren hauen esleipenen auziak, ez duela oraindik epaike-

ten bidea agortu. Ikustear dago beraz, TÜV-Rheinlanden esku jarraituko ote duten, kalte-ordainik egongo ote den edota adjudikatario berriak zenbat urterako jasoko duen ustiapenerako eskubidea...

## Kataluniako *IAT kasua*

Katalunian, Ibilgailuen Ikuskaritza Teknikoaren adjudikazioen harira gurean baino nahaspila handiagoa piztu da. Harik eta kargu politikoak dituzten pertsonak auzipetzera iritsi arte.

*Campeón* kasutik eratorri den ***IAT kasua*** erakusten ari zaigu CIU alderdia barruraino sartuta egon daitekeela. Beste batzuen artean, "ustezko eroskeria" delituarengatik daude auziperatuta Oriol Pujol eta haren emaztea. "ITV kasuan" nahasitako enpresari baten alde bozkatzearen truke 30.000 euro jaso izana leporatzen dio Fiskaltzak Pujoli. Honek funtzio politikoak uztea erabaki du gauzak argitu bitartean: CIUko parlamentari kargua eta *Convergència Democràtica de Catalunya* alderdiko idazkaritza nagusia.

IATen esleipena CIUren eskutik jaso zuten bi enpresari (RVSA eta AGBAR) leporatu zaie 138.000 euro eman izana CIUko fundazioari. Antza, 2003an hauteskundeak galdu baino hiru hilabete lehenago, CIUk bi enpresa hauei orain ere agortu gabe zegoen adjudikazioa berriztatu zien. Berriztatzeak, luzatzea esan nahi du, noski: IATen negozioan 2014 urteraino ustiatzen jarraitzeko eskubidea jaso zuten. Handik denbora gutxira, Convergencia Democrática de Catalunya (CDC) alderdiaren fundazioak, bi "eskupeko" jaso zituen hain zuzen AGBAR eta RVSA enpresen aldetik; 90.000 eta 48.000 euroko donazio bana, hain zuzen ere.

Ikusi beharko da zein punturaino argitzen den trama guzti hau eta zenbateraino zipriztintzen duen CIU. Baina zalantzarik gabe, Kataluniako kasuaren adibideak agerian uzten digu IAT adjudikazioen atzean enpresa pribatuen eta zenbait politikariren interes pribatuek bat egin dezaketela, gizartearen gehiengoaren interesen kontura.

## Bilakaera eta estrategia nagusien giltzarriak

Greba arrakastatsu honen gakoak aztertzerako orduan, grebaren aurretiko faseetan egin beharrekoa den lana zein den ekarri digute gogora. Ekintza sindikalen arrakastarako baldintza beharrezkoa -baina ez nahikoa- den lana: afiliazioa sustatu eta barruko jendea antolatzeko lehendik egin behar den hori. Oso garrantzitsua izan da, tailerretara sartu diren langile berriak antolakuntza horren parte izan zitezten eta senti zitezten lortzea. Langile berriei ere nolabait erakustea, enpresa-batzordean haien intereseko erabakiak hartuko zirela, jende berria ere taldean integra zedin.

Aurretiko etapa horretan ere, ez dira gutxi izan langileek antolatu dituzten asanbladak. Lan-txanda guztiak amaitutakoan, gaueko 9tan hasita, txandaka egiten zituzten Irun eta Urnietako tailerren artean. Inoiz, goizeko 1ak arte egon izan dira bilduta, baten batzuek biharamunean goizeko 6:30tan lanean hasi behar bazuten ere. Asanblada bakoitzean gutxienez 30 kide egongo ziren, ez da makala gero!

Bestalde, greban zehar bi estrategia funtsezkoak izan dira militanteen konfiantza sendotzeko, eta beraz, grebaren arrakasta bermatzeko. Alde



batetik, enpresa-batzordeak jarrera erabat gardena erakutsi du bere militanten eta enpresako langileen aurrean. Hau da, une-oro ahoan bilorik gabe, argi eta garbi egia esanez. Bestetik, eta gardentasun honekin estu lotuta, langilea etengabe informatuta mantendu da. Ez zaio une batez, lantaldea informatzeari utzi; egunero e-mail bat bidali izan zaie langileei, beti jakinaren gainean egon zitezen.

Horren adibide garbia litzateke 2013ko irailean langileek aho-batez hartu zuten erabakia. Enpresak hitzarmenari egindako funtsezko aldaketak kenduko zituela esan, eta horren ordeztu biko ultraaktibitatea proposatu zienean, erabateko adostasuna izan zuen taldeak eta proposamena atzera botatzea deliberatu zen. Halako erabakia guztien adostasunarekin hartu ahal izateko, taldearen barruan kohesio maila handia behar da. Eta elkartasun maila hori eskuratzeko, gardentasuna, etengabeko informazioa eta asanbladatan jo eta su ibili izana ezinbestekoak dira.

Luze jo du azken greba honek, eta une batzuetan zaila izan da egotari eustea. Greban zehar ostiral goizetan egin izan dituzte batzarrak. 10tan hasi eta goiz osoan zehar jarduten zuten hurrengo asteko mobilizazioak antolatzen. Ez da erraza izan une batzuetan batzarretara joatea, esateko ezer berririk izan gabe, enpresak akordio batera iristeko borondatearik izan ez duelako.

Taldea nolabait motibatuta mantentzeko, premiazkoa izan da batzar horietan jendea engaiatzea, dinamizatzea eta inplikatzeko, denen artean ardurak delegatuz, eta ardurak taldea osoan zehar barreiatuz. Protesta oso mugitua izan da eta horren adibide argigarria dugu borroka honetan zehar kilometro bat baino gehiagoko paper-bilkaria erabili izana pankartak egiteko. Elkarretaratze ugari bat antolatu dira, greba luzatzeko aurreabisuak egin dira, salaketak enpresaren aurka...

Erabaki gogorak hartu behar izan dituzte bidean, eta prozesu guzti horretan taldearen batasuna funtsezkoa izan da, gehien bat unerik zailetan ere elkartuta mantentzeko. Are gehiago, mobilizazioak iraun duen bitartean, "eskirol" batzuk ere grebara batzea lortu dute!

Horretaz gain, komunikabideetan eta sare sozialetan beren lekua egiten ahalegindu dira eta beste gauza batzuen artean, blog propioa jarri

dute martxan: <http://huelgaitvgipuzkoa.blogspot.com.es>. Hala diosku enpresa-batzordeko kide batek:

*“Guretzat, gatazka batean sartuta bazaude eta notizia ez bazara, notizia izatea bilatzen duzu. Guk bilatu dugu gatazka mediatikoa”*

Notizia izate honekin nolabait lotuta, greba honek izan duen xehetasun bat: bederatzi hilabete iraun duen greba hau, ez zen greba mugagabe gisa abiatu. Ekainak 15eko egun hartan, uztailak 6ra arte deialdia egin zen. Hortik aurrera, greba deialdiak bata bestearen atzetik kateatuz, bederatzi hilabete izatera luzatu da. Mugagabea den greba deialdi baten aurrean, enpresak beti du aukera handiagoa geldituta dauden lan zentroak “bere gustura” antolatzeko. Ostera, deialdia apurka-apurka luzatzean, langileak egiten dira egoeraren jabe; haien esku dago gatazkaren gidaritzatza. Era berean, greba luzatzeko erabaki bakoitzak, IA Ten gatazka albiste izatea ekarri du. Azken batean, komunikabideen bidez ere presioa egiteko modu bat izan da.

*“Jendeak gu kalean ikustean pentsatuko zuen zer dela eta genbiltzan berriz ere borrokan. Denbora aurrera joan ahala, konturatu dira, kalean bageunden, zer edo zer ondo ez zebilelako izango zela”*

Zalantzarik gabe, hilabete hauetan zehar goraldiak eta beheraldiak egon dira taldekideen artean. Erresistentzia kutxak protesta egoeran tinko eusteko laguntza handia eman die, baina une batzuetan bakardade eta beldur sentimenduak norbanakoaren jabe egiten dira. Egoerari aurre egiteko taldearen indarrak ere laguntzen du,

*“norberak bere baitan senti dezakeen beldurra, taldean lausotu egiten da”*

Langileen eta taldearen indarraren argazkietako bat, **2014ko otsailaren 13an Irunen eginiko manifestazioa** dugu. Egun horretako aldarri nagusien artean bi azpimarra goituzake. Batetik, TÜV-Rheinlandek akor-



## Greba 2 hitzetan

Mikel Muñoz • ELA Oria-Goierri



### “Harro egoteko modukoa”

**D**agoeneko onartuta dauden lan baldintzak bermatu eta hobetzeko, itzela da, IATko langileek bi urteko borroka eta 9 hilabeteko greba egin behar izana. Eusko Jaurlaritzaren aldetik arduragabekeria handia da: bera da IA T zerbitzuen benetako jabea da eta hala ere, langileekin adosteko borondate faltagatik, derri-

gorrezkoa den zerbitzu publiko hau bederatzi hilabetez etenda egotea onartu du.

IATkoak langileak eredugarriak dira, borroka, antolakuntza eta ekin - tza kolektiboaren eredu dira. Langile klasearentzat, harro egoteko modu - koak!

dio batera iristeko zuen borondate eza salatu zuten: grebak 8 hilabete betetzen zituenean, enpresa behin baino ez zen langileekin bildu gatazkari buruz hitz egiteko. Bien bitartean, publikoki bestelako jarrera bat erakusteko azala zuen enpresak; lan-gatazkarekin amaitzeko hitzarmena sinatzea zegokiola jakin arren, “harrituta” zegoen lantegietan bizi zen gatazka irauten zuelako. Hitz batez, argi geratzen da, nor den adostasunera iristeko borondaterik agertu ez duena.

Bestalde, komunikabideen aurrean gogorarazi zuten langileak ez zebiltzala “**inongo hobekuntzarik**” exijitzen, lan baldintzak **bermatu** eta egonkortzea zela. Hau da, aurreko hitzarmenak bermatzen zizkien baldintzak betikotzea.

Horretaz gain, bakoitzak bere familia eta ingurua ditu, eta une latzetan senideak konbentzitu beharra izan dute. Etxekoei ulertu arazi behar izan diete, greban segitzeko motiboak bazituztela. Zentzu honetan, nahiz eta erresistentzia kutxa ezinbesteko babesa izan, ekonomikoki aldea igarri

egiten da, eta familiaren laguntza, babesa eta beraz, adostasuna, ezinbestekoa bilaka daiteke.

## **Administrazioaren arduragabekeria eta grebaren inplikazioak gizartean**

ELAk hasieratik zeukan jarrerari eutsi dio gatazkak iraun bitartean. Xedea, hitz egitera eseri nahi ez zuen enpresa adostera eramatea izan da; joan nahi ez zuen leku batera eramatea: negoziazio mahaira. Ez Eusko Jaurlaritzak eta ezta Industria Sailak ere, ez du bere gain inolako ardurarik hartu nahi izan, gatazka sindikala zela argudiatuz. ELAk, administrazio publikoaren ardura exijitu du, bai errepideetako segurtasunari erreferentzia eginez, baita zerbitzu publikoaren derrigortasunari aipamena eginez ere.

Zerbitzu minimoek ez dituzte kalitatezko zerbitzu baten baldintza osoak bermatzen; Urnietako IAT erabat itxita zegoen bitartean, Irungoak goizez baino ez zuen irekitzen. Bertan, ohiko plantillako lau kidez gain, azterketan trebakuntzarik ez zuten beste lau ere ari ziren, eta enpresak estatutuko iparraldean duen arduraduna. Hori horrela, ordua hartu ahal izateko, luze itxaron behar izan dute gipuzkoarrek.

Horietako bezero batzuk, errebisioa Gipuzkoan pasatzeko zituzten oztupoak ikusita, Nafarroara jo dute, TÜV-Rheinlandek Donezteben, Arbizun eta Berriozarren dituen zentroetara. Enpresari horrek ez dio kalterik egiten, alde batetik edo bestetik negozioa duelako, baina traba eta eragozpen guztiak erabiltzaileek pairatu dituzte. Doneztebe eta Arbizun ezohiko ilarak pilatu ziren greban zehar. Bolada guzti horretan Nafarroan burututako ikuskapenak fidagarriak ote ziren zalantzan jarri da, erabiltzaileen gorakadari aurre egiteko, azterketa bakoitzari denbora gutxiago eskaintzea eragin zutelako.

Errepideetako segurtasunari begira nahikoa mehatxu ez balitz, kon-tuan hartu beharra dago greban zehar ibilgailu asko ikuskapena egin ezi-nik geratu direla, eta honenbestez, errepideetan ibili direla zegokien ikus-kapena pasatu gabe.

IATko ELA kideek administrazioaren aldetik utzikeria egon dela salatu izan dute: gobernuak derrigorrezkoa den zerbitzu bat normaltasunez eskaintzeko bermeak eman beharko lituzke. Arantza Tapiak, ardura saihesteko Bergaran normaltasunez funtzionatzen ari zen IA T zentro bat bazutela argudiatu zuen. Kontseilariaren ustetan, grebak iraun bitartean, ez zegoen Urnietako zentroa ikuskatzeko inolako behar berezirik; ez bai-tzuten grebatik eratorritako inolako hutsunerik atzeman.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan jarri dira gre-balariak, haiei ere zegokien inplikazioa exijitzeko. Izan ere, grebak iraun bitartean Eusko Jaurlaritzak dagokion kanona jasotzeari uko egin dio, eta Aldundiak BEZ bidez diru kopuru bat biltzeari.

Baina gizarterekiko eta zerbitzu publikoaren bermearekiko dituen ardurez gain, IATko langileek bizi dituzten lan baldintzen gainean ere bere ardura du administrazioak. Alegia, publikoa den zerbitzua eskaintzen duten langile horien lan baldintzak, bere ardura ere badira. TÜV-Rheinlandek, 2010ko udan lortutako aurreko lan hitzarmena ez betetzeko jarrerari eutsiko balio, administrazioaren erantzukizuna izango litzateke. Bestela, pentsa genezake, administrazioak TÜV-Rheinland multinaziona-lak lan erreforma aplikatzearen alde egiten duela.

Arantza Tapia, ekonomiaren garapen eta lehiakortasun saileko kon-tseilariak Irun eta Urnietako greba ulertzen ez zuela aitortu zuen, enpre-sak ez baitzuen soldata gutxitzerik edo kaleratzerik planteatu. Gisa honetako adierazpen batek, lan gatazken inguruko ikuspegi oso mugatua erakusten du, lan-gatazka soldata murrizketa eta kaleratzeekin pareka -tzen delako.

## Sostengu mozioak udaletxeetan: presioa egiteko bide bat

Administrazio publikoa presionatzeko eta aldi berean, enpresa bera ere negozioazio bidera eramateko erabilitako estrategia bat, udaletxeetan martxan jarritako zentsura mozioak izan dira. Bide honetatik Eusko Jaurlaritza estutu nahi izan da “busti zedin” eta enpresek zerbitzua ustiatzeko ezarritako pleguak bete zitzen.

Udalez udal egindako mozio hauen bitartez, debatea piztu eta panorama politikoa aldatzea lortu dute: guztira hogeita hamar bat udaletan atera dira, oro har, BILDU eta PSOEn sostenguari esker. Horien artean ditugu, besteak beste, Irun, Hernani, Urnieta, Donostia, Tolosa, Usurbil, Pasaia, Oiartzun eta Errenteriako udalen adibideak.

Aldi berean, Eusko Legebiltzarreko Mahaiak 2014ko otsailean legez besteko proposamena aurkeztu zuen legebiltzarrean EH Bildu taldeko legebiltzarkidearen ekimenez. Proposamen honen bidez, bi kontu eskatzen zitzaizkion Eusko Jaurlaritzari. Batetik, **“beharrezkoak diren eginalak eta kudeaketa-lana lehenbailehen gauzatu zitzala... lan gatazka konpontzeko”** langileen lan-baldintza duinak bermatu eta zerbitzua normaltasunez eman zedin. Bestetik, eskatzen zitzaion **“beharrezkoak diren neurriak”** han zitzan **“enpresek zerbitzua ustiatzeko ezarritako pleguak bete”** zitzaten.

## 5 Bederatzi hilabeteren ostean erditutako AKORDIOA

Gatazkak iraun duen artean, enpresak langileei egotzi izan die konponbide batera iristeko gaitasun eza. Enpresa esaten ibili da, langileak zirela hitzarmen batera heltzeko gogoia falta zitzaiona, eta langileen borondate eza zela blokeo egoeraren arrazoia. Enpresak esandako gezurrak bata bestearen atzetik eroriz joan dira.

*“Presioa eginez, enpresa,  
irteeratik gabeko kalera eramatea lortu zen”*

azaltzen digu ELAko delegatuetako batek. Sindikatutik egindako presioaz gain, une jakin batean administrazioak eta komunikabideek ere eragin dute presioa enpresarengan. Gainera, ez zitzaion argudiorik geratzen gatazka gehiago luzatzeko.

Enpresaren alde-bateko jarrera ilustratzen du hurrengo pasadizoak: IATko langileak PRECO n izan ziren azken aldietako batean gertatu zen. Langileek Urnietako lantokian itxialdia egiteko asmoa zuten eta hori dela eta batzarrera deituta zeuden enpresakoekin. Batzarrean zehar, eta hortaz, batzarra amaitu aurretik, enpresaren ohar bat filtratu eta ELAkideengana iritsi zen. Ohar hartan, enpresak esaten zuen ez zirela batzarrean akordio batera iritsi. Horrek erakusten du, batzarrari eta negoziatioari inongo aukerarik eman gabe, enpresak bere jarrera aurrez finkatuta zuela.

Enpresa akordioaren bila jartzea, hein batean, epaitegietan zazpi bat sententzia galdu izanari zor zaio. Horrek guztiak enpresaren irudia higitu egiten du, epaiez gain, oinarritzko eskubideak urratu izanagatik kondenatua izan zelako. Bestalde, enpresak ez zuen espero, greba horrenbeste luzatuko zenik.

ELAko delegatuen ustez, berandu jokatu du administrazioak eta hortaz, berandu egin du presioa.

Bitartekariak luzatu zuen proposamenarekin ados agertu zen ELA, eta horrexekin Lakuara jo zuenean, zera galdegin zuen: ea akordioa zergatik ez ote zen onartzen. Baliteke une horretan administrazioak bere jarrera aldatu izana.

Azken ordura arte, enpresa ez zegoen sinatzeko jarrera irmo batekin. Ikusi besterik ez dago enpresaren borondate falta zein izan den: grebaren lehen zazpi hilabeteetan enpresak batzar bakar batean parte hartu zuen, 2013ko urrian.

IATko langileek ziurtatu dute grebari amaiera eman dion hitzarmenak beraien aldarrien %100 biltzen duela. Azken batean, aurreko hitzarmenak bermatzen zituen baldintzak errespetatzea eskatzen zuten, eta horixe da amaieran enpresak onartu duena. Zer da bermatu dutena?

- Ultraaktibitatea osoa/behin-betikoa

- Hitzarmena lan erreformaren aurka babestea

- Soldata-igoerak adostu dira. 2012 eta 2013 urteetakoak KPIren arabera eguneratu dira; 2014koak izoztu dira eta 2015 eta 2016rako igoera posibleak aurreikusi dira. Igoera hauek etorkizuneko ikuskapen kopuruari lotu zaio (urtean 140.000tik gora). Lorpen handia izan da hau, ELAkoen ustez, izan ere, enpresaren nahia soldata-igoerak zerbitzuaren prezioen igoerari lotzea baitzen.

## 6 Itxiera

Bi urte luze iraun zuen lan gatazkak eta joan den martxoan amaitu zen bederatzi hilabeteko greba: ibilbide luzea egin dute borrokan. Lorpen handia izan da lan hitzarmena berriztatzea, zalantzarik gabe. Lorpen handia, eta lan nekeza. Beste behin ere langileek erakutsi digute zertarako diren gai: hilabeteetan zehar tinko eutsi diote egoerari, eta haien eskubideak irmoki defendatu dituzte. Greban bai, baina ez dira geldirik egon. Eta, grebaren osteko lehen egunean ere gogor egin zuten lan, beraien konpromisoa erakusteko. Pozik daude lortutakoarekin, nolabait esatearren enpresak bere posizioan atzera egin duelako. “Oraingoz...”, markatzen zigun ordezkari batek.

